

Langile klasearen ihesaldia

**Maidar Iantzi
Goienetxe**

Pasatu zen Maiatzaren Lehena, baina lanean eman nuen egun hartako gogoetak konpartitu nahi ditut. Irratian dataren jatorriaren berri adituz gustura egin nuen lantokirako bidea. Bertan kontatu zuten 1889an Parisen ezarri zutela Langileen Eguna, Chicagon hil zituzten sindikalista anarkisten omenez. Zortzi orduko lanegunaren aldeko greba hasi zuten 1886ko maiatzaren 1ean. Irratiko solasaldian aipatu zuten indar handia izan duela Maiatzaren Lehenak, baina orain jaiegun bat gehiago bilakatua dela. Horren lekuko izan nintzen, asteazkenean

tokatu arren jendea oporretara alde egin zela sumatzen baitzen. Egun libre bat izan orduko ihesi joaten da gaurko langile klasea. Errepideak eta aireportuak bete eta etxe ordainezinak husten dira. Baina langile klasea al gara? Klase horrekin identifikatzen al gara? Mobilizazioak apaldu izanaren arrazoi bat izaten ahal da goragoko klaseekin identifikatu nahia beheragokoekin baino gehiago.

Eta zer da klase ertaina? Haren parte ginela pentsatu izan dut, baina pikutara joan da ustea Laurent Wauquiez Estatu frantseseko Errepublikanoen alderdiko presidenteari hilabeteen 6.000 euro

irabazten dituen bikote bat klase ertainekoa dela irakurtzean. “Le Monde” egunkarian kontzeptua definitzea zein zaila den azaltzen dute. INSEE behatokiak 1.265 eta 2.275 euro arteko diru sarrerak kalkulatu dizkio klase ertaineko pertsona bati. Sobera pobrea eta sobera aberatsa ere ez den herritarren gehiengoa litzateke. Pobretzen ari dena, eztabaida publikoetan salatzen dutenez. Norbanakoaren kontsumoa har daiteke kontuan, diru-sarrerak (zergen aitzinetik edo ondotik), ondasunak, umerik badien, bikotean bizi den... Eta zuek, zein klasetakoak zaretela uste duzue? •

Hauteskundeetako egiak eta irainak

**Xabier Mikel
Errekondo**

Minbera ditut belarriak hauteskunde hauteskunde gezurra egia bihurtu nahian mila aldiz errepikatzeko ari keta-mailukadengatik. Ez al da ba arte-lana gezurra egia gisa ikusaraztea, edo bereizezin egitea... hauteskundeak igaro artean behinik behin? Gezurra iraingarria da, ordea, diru sarrerak bermatzeko errenta beharrezko duenari, etxegabetutako herritarri edo hezkuntza, osasuna edo ingurumenarekin sentibera denari zuzentzen zaionean.

Min ematen du Gipuzkoako ahaldu nagusi Olano jaunak beren politikaren ardatz nagusia «herritarrei entzutea,

ahotsa ematea eta elkarlana» direla esatea eta gero ikustea soilik proiektuen %10 inguruan eskatzen dutela iritzia eta jasotakoekin nahi dutena egiten dutela. Olano jauna ikasi herritarrak aintzat hartzeak lau oinarri bete behar dituela: informatu, eztabaidatu, erabaki eta bete (instituzioek).

Eta Donostiako Metroa? Nabarmenkeria galanta da (PSEk Bilborekiko duen konplexuaren ondorio), baina nola arriskuan jarri EAJren enpresa-lan batzuen negozio biribila herritarrak informatu, eztabaidatu eta erabakiak elkarlanean hartuta? Beste horrenbeste erraustegiarekin? Inozo-

keriak nekez du gobernatzen. Eta gehiago, aldundiek eta Jaurlaritzak ez dute ulertzen jubilatuen eta langileen duintasuna iraindu egiten dutela pentsio minimoa eta gutxieneko soldata igo ezin dituztela diotenean edo erresistentzia hauteskunde langileen baldintzak hobetzea beren esku ez dagoela diotenean?

“Egia” eta irainaren mugan, Almeriako hondartzan uretaratutako bonba nuklearrak arriskurik ez zuela harroketiaz Fraga Iribarne esan nola, erraustegia berdea eta osasungarria dela dio Olano jaunak. Inork barkatzekotan “Jainkoak diezaiola!”. •